

ELKARBIZITZA IKASGAI

Kulturaren arteko harreketarako proposamena

Gure erabakien
ondorioak
geure kargu
hartzea



Onartu
zure akatsak

UNITATE DIDAKTIKOA



Gure erabakien
ondorioak
geure kargu
hartzea



PASARTEA TESTUINGURURATZEN

- Argumentuaren laburpena _____ 4
- Sentsibilizaziorako lema nagusia _____ 4
- Unitate didaktikoaren ikuspegia _____ 4
- Helburuak _____ 5
- Hezkuntza eremu desberdinetarako orientabideak _____ 6

ARIKETAK

A

Sarrerarako eta sentsibilizaziorako ariketak

1. Erabakiak hartu _10
2. Begiratzeko erabilitako betaurrekoaren arabera _____10

B

Pasartea aztertzeko ariketak

3. Iritzi orokorrak _11
4. Pertsonaiak _____11
5. Harremanak eta erantzunak _____12
6. Amaiera _____13
7. Zuhurtziaz eta zuhurtziarik gabe jokatu _____13
8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna _13
9. Istorioa berridatzi _____14

C

Hausnartzeko eta sakontzeko ariketak

10. Zentzuzko iritzia berretsi _____15
11. Txantxari erantzun _____16
12. Erronka jotzen digutenean, borroka saihestu _17
13. Istiluetan ez sartu _____18
14. Presioaren aurrean... erantzuna _____19
15. Arrazoiak zentzuz sinestarazi _____20

Aurkibidea



O

Hiztegi ariketak

16. Gauzen izenak ____21

E

Laburpen ariketak

17. Ondorioak ondorio,
akatsak geure
gain hartu ____22

F

Azken ariketak eta
konpromisoa
hartzeko ariketak

18. Bizitzako
antzerkiaren jaia ____23

pasartea testuingururatz



Argumentuaren laburpena

""Autoez ari
garela, umeek
autoak

garbitzen baino ez dakite, ez gidatzen". Horrelako iseken bidez, Pablok Xabier eta bere lagunak zirikatzen ditu, euren gurasoen autoa garbitzen duten bitartean. Aurkakoa erakutsi nahian, Xabier eta bere lagunak autoan sartzen dira, giltzak baimenik gabe hartzen ditu eta abian jartzen du autoa.

"Toreatzen" utzi izana izan zen bere lehenengo errakuntza; bigarrena, nola jakin gabe eta baimenik gabe autoa gidatu izana; eta hirugarrena, aurreko errakuntza guztiak estaltzen ahalegindu izana.

Sentsibilizaziorako lema nagusia

"Geure erabakien ondorioak geure gain hartu."

Unitate didaktikoaren ikuspegia

Nork bere irizpidea izatea bizitzako jarrera zailenetakoa da. Nekez jartzen da abian eta kostata eusten

zaio. Neska-mutil askok eta askok hausnartzeko eta ingurunekeo presioei aurre egiteko gaitasuna garatu behar dute, euren irizpidea izateko.

Asmatu ala ez asmatu, beste batek nahi duena egin dezagun jasandako asmo txarreko presioak ez dira aholkulari egokienak, inolaz ere.

Askotan, pasartean azaldutakoan antzeko egoerak gertatzen dira familietan, eskolan eta lagun-taldean. Esate baterako, bihurrikeriak egiteko asmoz, lagun nagusiek edo "esperientzia" handiagoko lagunek proposatzen dizkiguten erronkak.

Batzuen, inoren lepotik barre egitea da erronka horien helburua,



eta pertsona ahulenak, beste kultura eta herrialde batzuetako ikasleak... dira euren jomuga. Izan ere, kolorea, hizkera, itxura, adierazpideak edo tradizioak aitzakia, barregarri uzten dituzte larderiaz.

Beti-beti asmo onez egiten ez ditugun txantxek pertsona horietan dituzten ondorioetan pentsatzea da nork bere irizpidea izatea eta horren arabera jokatzeko, pertsona horiek baztertuta edo gutxietsita sentitu ahal direlako.

Helburuak **Helburu nagusia**

Eguneroko esperientzia oinarri, zenbait talde, egoera, kultura, sorterritako... neska-mutikoen arteko elkarbizitzan sortutako arazoak antzeman eta galderak egin. Horretarako, hausnarketa eta erabakiak hartzeko prozesuak erabili, beste pertsona batzuekin lan egin, kanpoko presioei eutsi eta norberaren ekintzen ondorioak norberaren gain hartu.

... gure txantxek
pertsona horietan
dituzten ondorioetan
pentsatu, baztertuta
sentitu ahal direlako.

Hezkuntza helburuak eta helburu didaktikoak

1. Erantzukizunaren zentzua garatu, konfiantzako zeregina gure esku uzten dutenean.
2. Eguneroko bizimoduko edozein arlotan erabakiak hartzeko orduan eman beharreko urratsei buruz hausnartu.
3. Ingurukoek, lagunek edo aurkariak edo komunikabideek egindako presioak antzeman, gure erabakiak baldintzatu egiten dituzte eta.
4. Neska-mutikoen egoera zailak antzeman, horien aurrean erabakiak hartu behar ditugulako, gure ikaskideek esan eta pentsatzen dutena esan eta pentsatzen dutela ere.





5. Estrategiak ikasi, gure ekintzek sortutako erantzukizunak geure gain hartzeko.
6. Kanpoko eraginek baldintzatutako ekintzak balioetsi, ikaskide ahulenek edo desabantaila pertsonal edo sozialean dauden ikaskideek bizi ahal dituzten egoera zailen aurrean.
7. Bizitzan izan ahal ditugun egoerak aztertu, beste kultura batzuetako pertsonen alde egon nahi dugulako eta euren aurka dauden pertsonen aurrean nola jokatu zehaztu nahi dugulako.

Hezkuntza eremu desberdinetarako orientabideak

Familia: hartutako erabakien ondorioak geure gain hartzea heldutasunaren adierazgarri da. Nolanahi ere, batzuetan, gehiegi

babesten ditugu seme-alabak eta ez diegu uzten euren ekintzengatiko erantzukizunak euren gain hartzen.

Gure seme-alabek beste kultura, etnia eta erlijio bateko ikaskideekin edo baztertuta bizi diren ikaskideekin dituzten harremanetan, txantxak eta isekak egoten dira, eta, askotan, oso mingarriak eta ankerrak izan ahal dira beste pertsonarentzat.

Familiako hezkuntza-harremanetan, oso garrantzitsua da ekintzen ondorioak norberaren gain hartzen jakitea eta egindako kaltea ordaindu beharraren inguruko kontzientzia hartzea.

Bestetik, ezinbestekoa da pertsonak, pertsona guztiak, begirunez tratatzea, euren jatorria edo maila edozein dela ere.

Batzuetan, gehiegi babesten ditugu seme-alabak, eta ez diegu uzten erantzukizunak euren gain hartzen.

Eskola: funtsean, zenbait egoera aztertu nahi ditugu, eta, bertan, euren ideien arabera jokatu behar dute neska-mutikoek.

Hasiera batean, eguneroko bizimoduko bihurrikeria batzuk antzematen ditugu. Itxuraz garrantzirik ez duten egoera horiek



aztertu, jokabideetan sakondu eta arrazoi konplexuagoetan murgiltzen gara.

Horrelako egoera zail batzuk antzemandakoan, gizartearen jokabideak aztertzen ditugu, banan-banako edo gizarteko zailtasunak dituzten gizakiei dagokienez.

Geure errealitatera hurbildu eta geure ikastetxea eta arlo horretan gertatu ohi diren egoerak aztertzen ditugu. Beste herrialde bateko ikaskiderik badago, berarekin eta gure artean aztertu ahal dugu egoera. Horrez gain, ikaskide hori onartzeko, elkarrekin bizitzeko,

“
... gure bizimoduan
hobetzeko nolako
urratsak eman
behar ditugun
aztertu.”

elkarri laguntzeko eta geure historia, kultura eta tradizioen bidez aberasteko modu egokienari buruz hausnartu ahal dugu.

” Era berean, erantzukizuna eta ondorioak norberaren gain hartzeko gaitasuna aztertzen dugu

erabakiak hartzeko prozesuan, eta, beharrezkoa izanez gero, geure jokabidea zuzentzen dugu.

Harremanetako errealitate horri dagokionez, banan-banako eta taldeko bizimoduan hobetzeko nolako urratsak eman behar ditugun aztertu ahal dugu.

Tiempo libre: erantzukizunaren garai nagusia da. Eskolako arauetatik kanpo dagoen eremua bada ere, nork bere erantzukizunak ditu, gauzek aurrera egin dezaten. Hori dela eta, ezinbestekoa da erabakiak hartzeko prozesuaren eta euren ondorioen gaineko erantzukizunak norberaren gain hartzen ikastea hezkuntzaren eremu horretan, aisialdian, alegia.

Era berean, eremu horretan ere, okerreko erabakiak hartu ahal dira, behar ez den moduan jokatu ahal da eta norbaiti kalte egin ahal zaio. Erantzukizunak norberaren gain hartzeko prozesuaren osagaia da eragindako kalte material edo morala ordaintzea.



ESKOLA. Curriculum eremua

Tutoretza

1. Erabakiak hartu __ 10
3. Iritzi orokorrak __ 11
4. Pertsonaiak __ 11
5. Harremanak eta erantzunak __ 12
6. Amaiera __ 13
7. Zuhurtziaz eta zuhurtziarik gabe jokatu __ 13
8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna __ 13

Hizkuntza

2. Begiratzeko erabilitako betaurrekoaren arabera __ 10
3. Iritzi orokorrak __ 11
9. Istorioa berridatzi __ 14
10. Zentzuzko iritzia berretsi __ 15
11. Txantxari erantzun __ 16
12. Erronka jotzen digutenean, borroka saihestu __ 17
13. Istiluetan ez sartu __ 18
14. Presioaren aurrean... erantzuna __ 19
15. Arrazoioak zentzuz sinestarazi __ 20
16. Gauzen izenak __ 21
17. Ondorioak ondorio, akatsak geure gain hartu __ 22
18. Bizitzako antzerkiaren jaia __ 23

Ingurunearen ezagutza

18. Bizitzako antzerkiaren jaia __ 23

AISIALDI HEZIGARRIA. Tipologia

Soziodramatikoak

2. Begiratzeko erabilitako betaurrekoaren arabera __ 10
10. Zentzuzko iritzia berretsi __ 15
11. Txantxari erantzun __ 16
12. Erronka jotzen digutenean, borroka saihestu __ 17
13. Istiluetan ez sartu __ 18
14. Presioaren aurrean... erantzuna __ 19
15. Arrazoioak zentzuz sinestarazi __ 20

Kreatiboak

1. Erabakiak hartu __ 10
16. Gauzen izenak __ 21

Kooperatiboak

3. Iritzi orokorrak __ 11
4. Pertsonaiak __ 11
9. Istorioa berridatzi __ 14
17. Ondorioak ondorio, akatsak geure gain hartu __ 22

Ariketak



Harremanak bultzatzekoak

Jai eta jardunaldiak

2. Begiratzeko erabilitako betaurrekoaren arabera _____ 10
3. Iritzi orokorrak _____ 11
4. Pertsonaiak _____ 11
5. Harremanak eta erantzunak _____ 12
6. Amaiera _____ 13
7. Zuhurtziaz eta zuhurtziarik gabe jokatu _____ 13
8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna _____ 13

18. Bizitzako antzerkiaren jaia_23



A

Sarrerarako eta sentsibilizaziorako ariketak

1. ariketa ~ "Erabakiak hartu"

Erabakiak hartzeko zuhaitza oinarri, grafikoa egingo dugu ikasleekin.

Esate baterako, neska-mutiko batzuk igande arratsaldean zer egingo duten pentsatzen ari dira. Lau aukera dituzte:

- A) zinera joan; B) joko-aretoa joan; C) saskibaloia jokatu;
- D) eurretako baten etxean elkartzeko bideo-kontsolan jokatzeko.

Erabakiak, alde on eta txarrak eta ondorioak izango ditugu aztergai.

2. ariketa ~ "Begiratzeko erabilitako betaurrekoaren arabera"

- **Azalpena:** zenbait ikuspegiren bitartez ikusten da errealitatea.
- **Materiaia:** alantze edo karto mehezko zortzi betaurreko-armazoi.
- **Garapena:** begiralearen proposamena: "Hona hemen mesfidantzaren betaurrekoak. Betaurrekoak soinean eramaten ditudanean, ez naiz inoren fio. Nork jarri nahi ditu eta nork adierazi nahi du zer ikusten duen eta gutaz zer pentsatzen duen?". Geroxeago, beste betaurreko batzuk ateratzen dira eta boluntarioei eskaintzen zaizkie (esate baterako: "konfiantzaren" betaurrekoak, "ipurterrearen" betaurrekoak, "nik den-dena egiten dut txarto" betaurrekoak, "denek maite naute" betaurrekoak, "inork ez nau onartzen" betaurrekoak...).
- **Hausnarketa:** taldeka. Nola sentitu diren eta betaurrekoen bidez zer ikusi duten adierazi ahal dute guztiek. Taldean komunikatzeko orduan dauden arazoei buruzko elkarriketaren hasiera izan daiteke.

* Nahi ditugun "betaurrekoak" aukeratu ditugu, irudikatu nahi ditugun balioen edo kontrabalioren arabera.



B

Pasartea aztertzeko ariketak

3. ariketa ~ "Iritzi orokorrak"

Lehen iritziak: pasartea erraza da oso. Seguruenik, mundu guztiak esan ahal du burura etorri zaion lehenengo gauza eta lehenengo ezarpena egin ahal du bere bizitzan bertan.

Iritzi orokorra: oro har, guztien iritziak bildu nahi ditugu. Ondoren, esaldi bat edo bitan laburtu daitekeen ideia nagusia aterako dugu.

Argumentuaren laburpena: guztion artean argumentua hitzartu ondoren, berriro azalduko dugu istorioa. Neska edo mutiko bati eskatuko diogu pasartearen laburpena egiteko. Handik aurrera, denon artean hobetuko dugu.

4. ariketa ~ "Pertsonaiak"

Si se han visto los episodios anteriores pueden caracterizarse los personajes y sus actuaciones.

Aurreko pasarteak ikusi badituzte, pertsonaiak eta jokabideak irudikatu ahal dituzte.

Protagonista nagusia Xabier da, bai eta gainerako lagunak ere: Yolanda, Marta, Sergio, Hektor eta Juan José.

Lagun-talde aurkarian, Pablo eta bere bi lagunak daude. Aurrekoei iseka egin eta eurak "zirikatzen" ahalegintzen dira.

Pertsonaia	Nolakoa da?	Zer jokabide dauka?	Zergatik du jokabide hori?	Zer deritzozu jokabide horri?	Beste jokabideren bat bururatzeko zaitzu?
Xabier					
Aita eta ama					
Yolanda					
Marta					
Hektor					
Sergio					
Juan José					
Sera					
Pablo eta bere lagunak					



5. ariketa ~ "Harremanak eta erantzunak"

Elkarriketa talde-hausnarketaren oinarria da. Hona hemen zenbait galdera, iritzi-trukea biziagoa izan dadin:

- Zergatik garbitu behar du Xabierrek aitaren autoa? Zer gertatu da aita autoa saldu beharrean egoteko?
- Zer egiten dute Pablok eta bere lagunak Xabier eta bere lagunak autoa garbitzen ari direla ikustean?
- Zer erronkari aurre egin behar dio Xabierrek?
- Xabierrek erronkari eutsi edo amore ematen du, aitak giltzak utzi nahi ez badizkio ere?
- Okerreko zer erabaki hartzen ditu Xabierrek?
- Zer gertatzen zaio autoari?
- Zer aholku eta erronka agertzen dira pasartean?
 - Gertatutakoa gertatuta, zein da pasartean agertzen diren pertsona-mota guztien jokabidea?
 - Zer erabaki hartzen dute Xabierrek eta bere lagunak, sortutako arazoa kontuan hartuta?
 - Zer alde on eta txar ditu erabaki horrek?
 - Istorioaren amaiera aztertuko dugu. Nolako laguntza ematen dute guztiek arazoa konpondu ahal izateko?
 - Erabakiren bat hartzeko orduan, zer urrats eman behar da ez erratzeko?





6. ariketa ~ "Amaiera"

Taula hau bete eta pertsonaia guztiek pasartearen amaieran duten jokabidea aztertuko dugu.

Pertsonaia	Zer jokabide dauka?	Zergatik?	Zer esango zenioke?
Xabier			
Aita eta ama			
Yolanda			
Marta			
Hektor			
Sergio			
Juan José			
Pablo eta bere lagunak			
Sera (zaindaria)			

7. ariketa ~ "Zuhurtziaz eta zuhurtziaz gabe jokatu"

Taula honetan, zuhurtziaz eta zuhurtziaz gabe jokatzeko duguneko egoerak jasoko ditugu.

Zuhurtziaz	Zer sentitzen du?	Zuhurtziaz gabe	Zer sentitzen du?

8. ariketa ~ "Gehien eta gutxien gustatu zaiguna"

Neska-mutilek gehien balioetsi dituzten pasarteko alderdiak eta edukiak nabarmendu nahi ditugu.

Gehien gustatu zaidana	Gutxien gustatu zaidana

Taula osatutakoan (talde txikitara egin daiteke, edo bestela, arbelean edo horma-irudian, talde handi batean), aztergai dugun gaiarekin zerikusia duten osagaiak nabarmenduko ditugu.



9. ariketa ~ "Istorioa berridatzi"

Pasartearen mezua. Zer esan nahi digun.

Esaldi edo eslogan batean idatzi pasartearen mezua.

Eslogan edo esaldi hori alderatu arbelean alde z aurretik idatzitakoarekin.

Bizi edo ezagutu ditugun onarpen edo bazterketa egoeren pasarteak edo istorioak azaldu. (Komikia, ipuina, antzezpena... izan daiteke).

Honako hauei buruz hausnartuko dugu: pasartearen ondorioz sortutako gaiak, zuhurtziazko eta zuhurtziaz gabeko jokabidea, bata eta bestearen ondorioak eta proposatutako galderei emandako erantzunak.

Naska eta mutiko moduan dugun esperientziatik, bi egoera-
u eta bestelako
atziko ditugu. Era berean,
radun istorio ere asmatu
atera edo bestera jokatu
jta.





C

Hausnartzeko eta sakontzeko ariketak

10 . ariketa~ "Zentzuzko iritzia berretsi"

Xabierrek bere lagunen aurrean bizi duen egoera eta beste mutil-taldearen erasoak kontuan hartuta, zenbait jokabide izan ahal ditugu. Hona hemen eurentako hiru:

a egoera: Xabierrek zirikatu nahi duten ikaskideei aurka egiten die eta borrokan hasten da.

b egoera: Xabierrek atzera egiten du eta etxean giltzapetzen da garai hobea noiz etorriko zain, alde egiteko aitzakiaren baten bila.

c egoera: Xabierrek erantzunak bilatzen ditu, aurkariak lotsa-lotsa eginda uzteko.

Eztabaida: zer egin?

Berrespenaren urratsak.

1. Nire lagunen aurrean erronka jotzen didatenez, neure baitan sentitzen dudanaren kontzientzia hartu, urduri jartzen ari naizen zantzuak aintzat hartu.
2. Zer gertatzen zaidan onartu eta arrazoiak zeintzuk diren aztertu. Adarra jotzen ari zaizkit? Erronka jotzen didate eta nire buruzaletasuna jartzen dute auzitan? Nire lagunek eurek baldintzatzen dute nola bizi dudana ahaika hori?
3. Egin behar dudanari buruz daukadan iritzia berresteko moduetan pentsatu eta eurentako bat aukeratu.
4. Neure iritzia zuzenean eta zentzuz eman, erronkaren zaratei jaramonik ez egin, lagun hurbilen laguntza bilatu, pentsatzen dudana esan, lagun hurbil gehienen iritzia lortu.



11. ariketa ~ "Txantxari erantzun"

Erronka jotzen digutenean eta iseka egiten digutenean, zein izan daiteke borroka ez beste erantzun bat?

Zenbait egoeratan izan ahal ditugun erantzunak aztertuko ditugu:

- Iseken aurrean, ez egin jaramonik kideen iritziei, etxeko, ikastetxeko, eguneroko bizimoduko eta aisialdi-elkarteko zereginen bat garatzean.
- Adarra jotzeari uzteko esan erronkari, gurasoentzako lan bat egiten ari garelako.
- Ikaskideen isekari aurre egin txantxen bidez.

Hiru egoerok kontuan hartuta, taldean marraztuko dugu komikia, eta zer egin behar dugun adieraziko dugu amaieran.

Aukerei buruz eztabaidatu guztion artean eta bidea ezarri, "zentzuzko" edozer egiteagatik ikaskideen iseka jasatean zer egin beharko litzatekeen behar bezala erabakitzeko; esate baterako, etxean laguntzeagatik edo ikastetxera iritsi berri den eta laguntza behar duen ikaskide atzerritar baten premiez arduratzeagatik.

"Kiniela" bete eta taldean eztabaidatu.

Zer egin iraintzen nautenean?

	BAI	EZ	ED/EE
Isekaren helburu naizela onartu			
Borroka bidez erantzun			
Erantzuteko moduei buruz hausnartu			
Oldarkotasunez iraindu erronkariak			
Erantzun egokiena aukeratu eta abian jarri			
Alde egin eta ahoa bete hortz utzi erronkariak			



12. ariketa ~ “Erronka jotzen digutenean, borroka saihestu”

Auzoko taldeen arteko lehiari aurre egingo diogu. Talde batean, beste leku eta kultura batzuetako lagunak gaude. Gustura gaude eta lagunak izan nahi dugu.

Beste taldean, zenbait mutil daude, eta, “atzerritarren” taldera joan garenez, traizioa egin diegula uste dute.

Guk ez diogu inori traiziorik egin. Guztion lagunak izan nahi dugu, besterik gabe. Dena dela, besteak ahaikaka eta irainka etorri zaizkigu eta aurrerantzean gurekin irtengo ez direla esan digute. Gatazka eta borroka bila dabilta, haserre haserre aldera.

Zer egin? Euren borrokan sartuko gara?

Zer egin ahal dugun aztertuko dugu. Hiru ideiak aztertu.

Mezularia bidali eta ikaskide aukariei esan borrokari ekin beharrean gertatutakoari buruz eztabaidatu nahi duzula.	Lagun-taldearen anaia nagusiei deitu, borrokan parte hartu eta indarraren bidez euren agintea inposatu dezaten.	Beste lagun-talde batzuei laguntza eskatu, borroka irabazteko.
Alde onak	Alde onak	Alde onak
Alde txarrak	Alde txarrak	Alde txarrak

Zer urrats eman behar ditugu, adiskidetasunaren eta lankidetzaren izenean borroka saihesteko?

1. Gelditu eta pentsatu zergatik borrokatu nahi dugun gure lagun-taldeko ikaskide etorkinen alde.
2. Epe luzera begira, ikaskide horiekin zer gertatuko den erabaki.
3. Borroka ez beste aukera batzuk eman arazoa konpontzeko.





4. Egoera menderatzeko modu egokiena aukeratu, gure aurkariak ikaskide etorkinak onartzeko eta neska-mutilen sasoiko bizimodua auzoan, eskolan eta aisialdian partekatzen.

13. ariketa ~ "Istiluetan ez sartu"

Lagun hurbilen aurrean "harro jartzeagatik" eta ikaskide "zirikatzaileei" "muturrean emateagatik", Xabier eta bere lagun guztiak izugarritzko istiluan sartzen dira. Horrez gain, istiluak gero eta gehiago korapilatzen dira. Zeintzuk diren ikusiko dugu.

1. istilua. - Xabierrek aitari ziria sartzen dio eta autoko giltzak lortzen ditu. Gero, badakigu zer gertatu zen; istripua, besteak beste.

2. istilua. - Autoak desegiteko lekutik pieza bat lapurtzea bururatzen zaie eta ez dute itzultzeko asmorik.

3. istilua. - Juanjo zaindariaren bizikleta hartzen saiatzen da. Badago besterik?

Zer egin istiluaren atarian, bata bestearen atzetik gertatzen direnean...?

Istilu-andana konpontzeko urratsak:

1. Izugarritzko istiluan sartuta gaudela onartu.
2. Egoera horretatik irten nahi dugu. Erabaki irmoa hartu dugu.
3. Taldeari eta aurkariari nahaste-borraste horretatik irten nahi dugula eta erabaki hori hartu dugula jakinarazi.
4. Egin daitezkeen "zentzuzko" gauzak iradoki.
5. Guretzat eta gainerakoentzat egokiena dena egin.



14. ariketa ~ "Presioaren aurrean... erantzuna"

Xabier eta bere lagunak Pabloren eta bere lagunaren presiopean daude. "Zirikatu" egiten dituzte eta etengabeko kaltea egiten diote euren buruzaletasunari. Ez dituzte bakean uzten. Alde guztietatik egiten diete eraso.

Era berean, batzuetan, gure lepotik barre egin ahal dute, aukera egokiak proposatzen ditugulako. Beste batzuetan, ordea, ez entzunarena egin ahal dute eta geure erabakiei eusteko uste sendoak eta ausardia ditugula onartu ahal dute.

Presionatu egiten gaituztenean, zer egin?

Sen onaren mailetan eramateko gauzen zerrenda:

Sen onaren mailetan eramateko gauzen zerrenda
1.-
2.-
3.-
4.-
5.-
6.-

Nola erantzun zenbait egoeraren aurrean?

1. Pablok eta bere lagunak "zirikatu" egiten gaituzte neska-mutikoei autoak gidatzerik ez dutela dioen Legea ez betetzeko.
2. Neskalagunek Fatima lagun berria uzteko presionatu naute, Marokokoa delako eta zapia daramalako. Bere laguna banaiz, eurak nire lagunak izango ez direla esaten didate, hau da, aukeratu egin behar dudala.
3. Ikaskideek Moridja ikaskide kongoarrarekin haserretzea nahi dute, gainerakoak baino indartsuagoa dela ez pentsatzeko.





Lehenengo eta ondoren zer egin aukeratu. Desegokia dena gaitzetsi.

1. Ez presionatzeko esan taldeari.
2. Taldeak zer egin nahi duen eta zergatik pentsatu.
3. Korrika ihes egin eta taldea bertan behera utzi.
4. Zer egin nahi dugun erabaki.
5. Erabaki nola esan taldeari zer egin nahi dugun.
6. Taldeari jakinarazi zer erabaki dugun.

15. ariketa ~ "Arrazoiak zentzuz sinestarazi"

Ezagutzen ez dutenez, nire gurasoei ez zaie ondo iruditzen Hasam nire laguna izatea. Ikastetxera iritsi berri da eta oso ondo moldatzen gara. Gurasoei esan behar diet bere laguna izan nahi dudala eta onartu egin behar dutela etxera etorri behar duela ikastera eta haur-komikiak zein jokoak partekatzea. Noizbait eurei azaltzen ahalegindu naiz, baina ez didate entzun nahi izan. Inoiz ez dute astirik.

Honako gauza hauek kontuan hartuta, ikaskideekin eztabaidatu zer eta nola egin beharko zenukeen.

1. Elkarrizketan nola egongo garen pentsatu.
2. Hasamen laguna izan nahi dudala esaten diedanean, gurasoek zer sentituko duten pentsatu.
3. Esan nahi dudana nola esan ahal dudan pentsatu. Alde on eta txarrak. Onenak prestatu.
4. Zer esango didaten eta zer erantzun ahal diedan modu onean.
5. Beste gauza batzuk gertatu ahal dira. (Esate baterako, haserretu eta errieta egin ahal diet, baina ez dut halakorik egin nahi).
6. Modua, unea, lekua eta inguruabarra aukeratu. Aurrera!





D

Hiztegi ariketak

16. ariketa ~ "Gauzen izenak"

Pasartean agertzen diren jokabideak azalduko ditugu.

1. Lehenengo eta behin jokabidea azalduko dugu, eta, ondoren, izena jarriko diogu.
2. Gero, jokabideak azal dutakoan, esaldi hori ikasgelako ohiko hizkuntzetan, hirugarrenean ere bai, nola esaten den erkatuko dugu.





Laburpen ariketak

17. ariketa ~ "Ondorioak ondorio, akatsak geure gain hartu"

Pasarteari buruzko hausnarketan landu ditugun ideia guztien zerrenda egingo dugu.

AKATSAK GEURE GAIN HARTZEKO PROZESUAREN GAINKO OINARRIZKO IDEIAK

1.-

2.-

3.-

4.-

5.-

6.-

Pasarteari buruzko hausnarketan landu ditugun ideia guztien zerrenda egingo dugu.

Ikaskideekiko harremanetan ditugun akatsak onartu	Egoera hauek aztertu	Nolako jokabidea izan?
Beste ikaskide batzuekin harremanetan jartzeko modua aldatu egin behar dudala erabaki	Zer egoeratan?	Nola egin?
Aukera guztiak aztertu, zuzentzekotan	Guztien alde onak eta txarrak ikusi	Nolako jokabidea izan?
Erabakitakoa abian jarri	Nola, zer inguruabarretan?	Nola jarri abian?



f

Azken ariketak eta konpromisoa hartzeko ariketak

18. ariketa ~ "Bizitzako antzerkiaren jaia"

Oraingoan, neska-mutikook beste neska-mutiko batzuekin, ahulenekin, batez ere, egiten ditugun akatsei buruzko zenbait antzerkitxo antzeztuko ditugu.

Antzerkitxook bina edo hiruna koadro dituzte. Laburrak. Hausnarketan proposatutako gaiak konpontzeko moduari buruzko hiru urrats izango dira. Antzerkitxoen amaieran, hausnartutakoa laburbiltzen duen eslogana antzeztuko du taldeak.

Amaitutakoan, zenbait freskagarri edango ditugu.



© EDEX, 2003

Egileak:

Rafael Mendia eta Roberto Flores

Argitaratzailea:

EDEX

 Particular de Indautxu, 9. 48011 - Bilbao

 94 442 57 84  94 441 75 12

 edex@edex.es

 www.edex.es

ISBN:

84-9726-151-8

Obra osoaren ISBN:

84-9726-145-3

Lege gordailua:

BI-3004-03

Mod.:

164647

© Edizio honen eskubide guztiak EDEXenak dira, eta bere idatzizko baimena aldez aurretik izan gabe, ez dago lana oso-osorik edo zatika kopiatzerik.

"Gizalegezko kultura partekaturantz doan
eta gizakiaren eskubideetan oinarrituta
dagoen hezkuntzak soilik saihestuko du
desberdintasunek diferentziak sortzea, eta
berezitasunek etsaitasuna ekartzea."

Rodolfo Stavenhagen.
"Hezkuntzak altxorra dauka barruan".
DELORS TXOSTENA. UNESCO

Ekimenaren arduraduna:



Particular de Indautxu, 9
48011 Bilbao
www.edex.es • edex@edex.es

Kolaboratzailea:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
Immigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración

